

5. KANALAK

Atal honetan gure enpresaren komunikazio sarea ezarriko dugu eta zer kanal-mota erabiliko dugun ere.

Gure proiektua aurrera eramateko kanal propioa izango dugu, hau da, guk Interneten bidez salduko ditugu gure pultserak eta guk geuk gordeko ditugu saldu arte, biltegi batean.

Modu honetan, gastuak gutxitu egingo ditugu eta internetetik saltzeak askoz ere bezero handiagoko esparruak irekiko dizkigu.

Modu efikaz batean izango ditugu pultserak biltegitratuta eta banaketarako orduan, Interneten bitartez izango denez, ez dugu gure denda fisikoa edukiko; baina *komertzializazioarekin* eta *marketing*-arekin zerikusia duen pertsona fisiko bat izango dugu Gobernu kideekin hitz egiteaz arduratuko dena. Gure ideiarekin berri zuzenean jaso ahal izango dutenak, bezero bakarrak dira eta.

Horrek suposatzen dituen gastuak kenduta, Interneteko kanpaina handi bat antolatu behar dugu gure produktuak oihartzuna izan dezan merkatuan.

Horregatik, gure proiektua sare sozial nagusietan (Facebook, Instagram, Twiter.. eta baita ere blog eta gure web orrialdeen bitartez antolatuko dugu, gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dira eta.